

Zertaz ari garen Europaz ari garenean

Altzairua, ikatza, Eurovision, Interrail, Champions League. Bada haratago Europarik?

Bost ezaugarri nagusi atxikitzen dizkio Europari George Steiner pentsalariak *The idea of Europe* hitzaldian: sistema filosofiko berriez eztabaidatu eta konspiratzeko jendez betetako kafetxeen ugaritasuna; oinezkoen pausajerako egokia den paisaia; AEBetan ez bezala, iraganeko pentsalari, artista eta zientzialarien izenekin kaleak bataiatzeko joera; Jerusalem eta Atenasen nahasketatik –fedearen eta arrazoiaren gurutzaketatik– sortu izana; eta, azkenik, bere destino tragiko finituaren kontzientzia –europarrek ez bezala, iparamerikarrek ez lukete euren larruan nozitu dituzten *memento mori* bakanak liseritzeko dolu gaitasunik: irailaren 11 horren lekuko–.

Lehen ezaugarriari dagokionez –kafetxe borborkariak–, Mario Vargas Llosak berak enmendatzen dio gaztelaniazko edizioaren hitzaurrean (*La idea de Europa*, Siruela 2004): “Europa anglosaxoiarreen apenas den kafetxerik, eta *pub* edota tabernek ez dute itzal intelektualik; jan-edanerako dira, mintzatu, irakurri eta pentsatzeko tokiak baino gehiago”. Erantsi beharra dago zenbat ugaritu diren gure artean azken urteotan frankizia sasi-irlandarrek? Molly Malonenean ez dut aspaldi Oscar Wilden gaineko eztabaidarik entzun, eta nostalgiaz irakurri ditut Mikel Peruaren *Ez obeditu inori* nobelan arnarkistak elkartzen diren XIX. mende amaierako taska donostiar iluneko pasarte ederrak.

Biga: Espainiako Gobernuak dirua eskaintzen du autoak eros ditzagun. Krisiaren kontrako neurrien konstelazioan artizarraren gisan saltzen digutenean ideia distirant hau, ez dirudi George Steinerren oinezko Europaren ideiarene alde ari direnik batere (2-0...).

Ikustagun hirugarrena: kaleak adina pentsalari eta zientzialari garrantzitsu izatea. Honek bai, logika ikaragarria du: hirigintzak gurean izan duen motor ekonomiko funtzioa



DANI BLANCO

erabat justifikatuko luke, hainbeste pentsalari goren izanik, ditugun kaleak eskas baitira haientzat. Aldiz, AEBetan doktorego tesia egiten duten ikasle europarren %70etik gora ez da gero Europara itzultzen. Dena ezin: garunak edo adreiluak, aukeratu egin behar. Inpresioa, XX. mendean Europak izan duen bokazioetako bat ez ote den izan aldegitoko abiapuntuarena. Ihes lerroak hasten ziren lekua, Europa: Max Frischek Atlantikoa zeharkatzen zuelarik, xakera jolasten zuen ontziko kubiartan, eta Europa versus Amerika

ziren han xakean. Distantziak ezabatu dira, eta hori ongi dago, baina perspektibak ez ote dira ezabatu distantziekin batera?

Laugarrena: fedearen eta arrazoiaren nahasketa ei gara. Ados, baina zein proportziotan? Nago fedek hiru laurdenak hartzen dizkigula eta arrazoiak laurden bat apenas. Fedea zeri diogun jakin behar orain: alderdiari, estatu(tu)ari, fedeari, federik ezari? Badiozu federik Europari, irakurle? Hunkitu al zaitu inoiz? *4 hilabete, 3 aste, 2 egun* film errumaniarra ikusi nuen egunean harrotu nintzen neu azkenekoz Errumanian jaio izanaz –barka, European jaio izanaz–.

Azkena: patu tragikoaren onarpena. Hauteskunde europarretara aurkezten diren hautagai bozkatuenek apenas begiratzen dute atzera, ezpada euren birraitonek euskara debekatu izanaz harrotzeko.

Iritsi berriek zokoratu duten Europako zatira, historia beltzez blai dagoen literaturara, Kunderarengana, Giordan errumaniarrarengana edo Stephen Vizinczey hungariarrarengana joan beharra daukat desengainuaren argitasun kritikoaren printzaren bat atzemateko. Eta literatura balitz Europaren azken lubakia? ■

Badiozu federik Europari, irakurle?

Hunkitu al zaitu inoiz?

4 hilabete, 3 aste, 2 egun film

errumaniarra ikusi nuen egunean

harrotu nintzen neu azkenekoz

Errumanian jaio izanaz

–barka, European jaio izanaz–



irudia:

Antton Olariaga